



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || 12 Urtea || 1930'ko Otsaila || 134 Zenbakia. || :—

Lourdesko Ama Birjiña agertzen da.

(Otsailaren 11'ean.)

Agur



INGERU eta kristauak ainbeste poztutzen diran egun eder onetan, Ama Birjiñaren Seme, gure Jaungoikoari, agur... Eta mirari onen bidez Jaungoikoak berak adierazi nai digu, Ama Birjiñaren ager-aldiaz eskefak ematen badizkiogu, anima eta gorputzaren ona izango degula... (Invit.)

Zerua zabalik

Jaungoikoaren Eliza zeruan idiki da eta bere Pakezko Kutxa erdi erdian ikusi...

Patmosko igarle argiari agertu zitzaion zerua eliza eder baten antzean, eta eliza artan, Israelgoan bezela, Kutxa eder bat, ufez estalia, Jangoikoaren Pakezko Kutxa... Santuen Santuenean ikusten du Juanesek Kutxa, eta ori da Ama Birjiña...

Gizonarekin Jaungoikoak egin duan alkartasuna Ama Birjiñaren bidez egin du bakafik. Onek eman dio Salbatzalea, onen eskuan jafi ditu zeruko ondasun guztiak guri aietatik lodi emateko, eta zeruko Aitarekin gu pakezteko...

Arigaria

Alaxen ikusi zuen Juanesek: iguzki argiaz jantzirik, oiñ petan ilargia eta buruaren inguru, zeruko izafak.

Mirari aundi bat agertu zan zeruan. Andre bat argiaz inguraturik, oiñpetan ilargia zuela, eta amabi izafezko usteia buruaren gain. Eta zerutik ateratzen da oiñ bat, esanaz: Orain bai salbazioa, indafa eta eskubidea Jangoikoarekin daudela, eta gizonen jabetza Kristoren biotzean...

Garbi garbia.

Kristo, Ama Birjiñaren Semeak, garaitu eta pufukatu du deabrua. Jesusen irabaziaz eta indafez Ama Birjiñak bere sortzetik beretik menderatu du etsaia. «Sugeak burua goratzen du, pozoin zakafaz pozoindu naiez zure anima: bañan Zuk, iñork ezin garaitu zuena, etsaiaren buru afoa, zere oñaz lertu duzu.» Gure eskuan dago bada orain Satanas menderatzea, Jesusek bere Amaren bidez ematen digun indar eta laguntzakin...

Jangoikoa beti ona

Edozeñek esango luke mundu zakar au lur pean sartu bear duela Jangoikoak, bertan dauden gizon guztiak itoz; bañan gero ta geiago adierazten digu gure Jangoikoak, beregana ekafi nai gaituela... Eta ofetarako zerutik jetxitzen da «Bakearen Kutxa», au da Ama Birjiña.

Gizonak galtzeko berekin lezera daramazkien ugalde zorigaiztokoak, «Bakezko Kutxa» igarotzean, bere urak gelditzen ditu.

Agertzen da

Efukiturik Jangoikoak begiratzen dion efi batean jartzen ditu bere oñak Ama Birjiñak. Efi ori biotz onekoa bai, bañan zer barkatu naiko duena. Efi ori... Prantzia da: Lourdesera jetxitzen da. Masabielleko arkaitzaren gañean Bernardeta zekion gaztetxo bateri agertzen zaio. Gazte gaztea ematen du Ama Birjiñak eta aurpegia xalo erakusten du. Jantzia eta burukoa elufa bezin txuriak, eta gefikoa zerua bezela, urdiña... Eta ufe kolorezko afosa bi, bere bi oiñ utsen gañean... (4 Lect.) Ikusi nuen efi eder bat, Jerusalem beria, (Ama Birjiña) zerutik yausten, eztayetarako gaztea jantzitzen dan bezela, poliki apaindua, eta bere gizongaiaren bidera ateratzen dan bezelakoa. (In-troit.)

Gaur bai zeruko Efejiña zoragafia lufean agertu dala: gaur bai pakezko itz gozoak bere efi maiteari ekafi dizkiola. (Ant. ad Magn.)

Otsailaren 11'ean.

Lenbiziko agefaldian, 1858'gafen otsailaren amekan, gurutze sandua begiramenduakin egiten erakutsi zion gaztetxoari, eta besotik zintzilikan zerman efosarioa eskuan artuz, efosario saindua efezatzen laguntzeko eskatu zion. Gero amabost egunez ufen-ufen, uts egin gabe, arkaitz artara etortzeko agindu zion. Bein baño geiagotan itz egin zion, eta bekatarien alde otoitz eta bai ta penitentzia ere egiteko eskatu zion. Gero apaizei dena esateko adierazi zion: eta an leku artan eliza bat jasotzeko eta prosesiogan Jangoikoari bere Amaren bidez barkazioa eskatzera etortzeko agindu zion...

Edeña, gora zaitez...

Bernardetaren agertze eder onetaz oroitu ta, gogora eldu zaizkigu Eli-zak bere otoitzetan ateratzen dituen itz gozo batzuek: «Eder edeña, esaten

dio Ama Birjiñari: jaiki, nere maitea, eta etofi. Nere usotxo, nork iduki zaitu arkaitz artean eta paretaz itxirik? (Graduala). «Erakutsi zadazu zure aurpegia, nere maite, eta nere belafietan entzun dezatela nik zure agoko ots ori. Zure itzaren soñua ezta da eta zure aurpegia zoragafia, nere maitea» (Aleluia).



Ama-Birjiña Jaunaren Legea ikasten

Garbi sortua...

Gabriel Aingeruak bere aurfen belauniko jafirik esaten dio: «Agur, edertasunez betea, Jangoikoa zurekin, bedeikatua zu andre guztien artean... Eta Seme bat izango dezu, eta izendatuko dezu Jesus»...

Jangoikoaren Semea gizon egin zan egunean (Epailaren 25'ean) Bernardetak ainbeste aldiz agertu zitzaion Gaztetxoari nola zitzaion galdetzen dio: eta Ama Birjiñak bi eskuak bulafen gañean bildurik, begiak zeru aldera jaso eta erantzuten dio: «Ni Garbi Sortua naiz»...

Andre zoragaia

Andre guztiak bañan afigafiagoa zera zu, lenengo guratsoen zuzentzalea. (S. Bernard.). Zein zan andre ori, aditzera eman zigun Jangoikoak sugeari esan zionean: «Andrearekin eztuzu pakerik izango eta andreak lertu bear di-zu zuri burua.» Eta nork garaitu du suge-deabrua, Mariak ezpada? Onek txi-kitu etsaiaren burua eta bai ta eskubidea kendu ere. Ori bezelako baten bila zebilen Salomon Efegea, galdetzen zuenean: «Nork opatuko du andre sendoa lufen gañean? Nork arkituko du andre ori?» Eta befiz: «Andre baten eskuan ba-dago gizona zeruratzea, eta etsai gaiztoa garaitzea, bear beafezkoa da andre ori indartsua, aaltsua eta eskubide aundikoa izatea, lanpide ori ongi egiteko.»

Ama Birjiña Lourdesen

An bai iñon baño geiago agertzen dala Mariaren eskubidea! Zorioneko arkaitz zuloa! Jangoiko beraren Amaren ikusi-aldiakin edertu eta txukundua! Nundinaitik eldu zaizkitzu Zu ikustera, Ama gozoa, zuri otoitz egin eta zu-re ofetan belauniko mesedeak eskatzera...

Ama efukitsu onek, bere biotzean biltzen ditu gizonen negafak, bere la-guntza eskatzera etofitakoen malko saminak, eta eri gaixoei itzultzen die osasuna. Eta eriak Ama Birjiñari eskefak emanaz itzultzen dira etxeralde kantari biotz atsegin gozoz beterik.

Ama, otoitz egiten dizugun auetaz, efukitu! Gure biotzeko samintasunak gozatu, eta erdietsi mesedez, negafez lufean bizi geranei, Jangoikoagandik zeruko atsegin ezitia eta betiko zoriontasuna...

Arayozko Artzaina.**NERE OLERKIAK****(Nere adiskide IPURTARGI'ri)**

«Tristeak dira zure bertsoak benetan. Gaztea zeralarik, tristuraz noletan?». Aizkide, ez dira itunak nere olerkiak: alaiak dira baña tristuraz josiak. Egizko bizitzaren pakezko dirdira, nere bertsoak ori besterik ez dira, Egizko bizitz ori alai da ziñez, alai, baña nun-nai josia saminez. Bizitza bide bat da, Zeruko bidea, argatikan da alai bizitza, aizkidea. Itxaropen-euzkiak argitzen gaituta, bidean goaz pozez biotzak urtuta. Gurutza daramagu sorbalda-gañean, baña zorion-lorak ba daude bidean. Zeruia jartzen dute askok emen beran atsegin-printz oietan, abereen eran, ta «nun beren gogoak, an beren zankoak», ez dira aientzat nere olerki gaxoak. Aizkide, ez dira ilunak nere olerkiak, alaiak dira baña, tristuraz josiak.

Jauregi'tar Luis.



Gizonak bear ditugu

Ez da beste gauzarik alderdi guzietatik entzuten: Emakumeak, Jaungoikoari eskefak, asko ta maiz joaten dira elizara. Baño ¿gizonak? ¿nola elizaratu? badirudi eliza, ta elizako gauzak, eta Sakramentu Santuak ta elizkizun guziak emakumeentzat bakar bakarik jariai daudela.

Negargafia da gure begiz ikusten ari gerana.

Gero ta gutxiago dakizkite gizonak gure Erlijio Santuaren gauzak.

Europako gefa izugafi afek gizon asko galdu zituan, baño gaurko ezjakite onek anima geiago galtzen ditu.

Gefak gorputzak iltzen ditu, baño gure erlijioaren ezjakite onek animak ondutzen ditu.

Zerbait egin beariko degu noski gaurko gaitz bildurgafi ori sendatzeko.

¿Ez al zerate oartu?

Elizetan gizon gutxi ta emakume asko.

Komunio Santua gure elizetan ematen danean gizon arpegi gutxi ikusten dira.

Konfesionarioen inguruetan beti, gizonak baño emakume geyago.

Paŕokiko kofradietan gizonentzat lekuri ezpalego bezela. ¡Eŕukafia!

¿Eliza emakumeentzat ote da?

Ez orixe. Eliza emakumeentzat, ta gizonentzat taberna, edo kafetxe, edo kasinua?

Ez, ori ezin liteke; Jesukristok emakumeentzat et gizonentzat jafi zituan agindu santuak berdin-berdiñak dira.

Zenengatik eman ote zuan Jesukristok bere bizitza eta odola, gizonengatik ala emakumengatik? guzion gatik, berdiñ berdiñ.

Mingafia da, bada, ainbeste eliza ta ƣafokia, alargunak diruditela, gizonik gabe ikustea.

Guziok gaude beartuak zerua irabazteko; emakumeak bezala gizonak ere.

Bear-beaŕezkoa, Apaiz Jaunak

¿Zer ote da beaŕezkoa? Gizonak biltzea. ¿Zergatik ain gutxi maite dute gizonak eliza ta elizako gauzak? gutxi dakitelako, ezjakite aundia dalako kristauren artean, baño batez ere gizonen artean.

¿Zer egin beariko ote degu bada, Jaungoikuak agintzen dituan gauzak, ta bere arimenzako bear dituztenak gizonai erakusteko? Gizonak elizaratu; elizara joango balira, entzungo lituzkete ta zeruko egiak entzutean maitatuko lituzkete.

Zerbait egin liteke

Egia, elizkizunetarako emakume baño gizon gutxiago joaten dirala, ta beren gogo gutxi ori, batez ere taberna ta oien antzeko lekuetan geitu egiten dala.

Baño jez bildurtu! Jaungoikoari eskefak, batez ere gure Euskaleŕi maitean, gizonak ederki joaten dira igandetako mezara.

Ondo betetzen dute beren eginbide ori.

Asmo eder bat

Gizonak igandeko meza ortara dijoazen ezkerro, igandeko meza ortan sayatu bear lirake Apaiz Jaunak gizonai erakusteko, gizonai gure erlijioaren maitetasuna

emateko. Ortarako gauza egokia izango litzake bada igandeetan gizonentzat Meza berexi bat jartzea, bestela asko lotsatu egiten dira, eta baita Euskalerian, batez ere efi aunditan gizon asko gelditzen dira mezarik gabe igandeetan. Baño gizonentzat bakar-bakarik izango balitz Meza berexi ori, geiago joango lirake; bildufa kendu egiten baita ainbeste gizonak elkar ikusita ta ofela gizonak ikasi egingo lukete; ordu ona izango litzake ura gizonai berak bear dituzten gai bereziaz itz egiteko ta poliki-poliki, beren biotzetan Elizaren maitetasuna sartuko litzake, ta gure Erlijio Santuak asko ta asko irabaziko luke.

Donostiar Gabriel A.

II.

Aldareko Sakramentu guziz santua

Accipite et comedite: hoc est corpus meum.
(Matth. XXVI-26).

Artu ta jan zazute: au da nere gorputza.



AKRAMENTU guzietan aundienaz, done edo santuaz eta afigafienaz itzezin bear dizut gaur, nere kristaua.

Elizak erakusten digu: «Aldareko Sakramentu guziz santuan, ogi ta ardoaren iduripean Jesukristo Jauna ber-bera dago, eskeintzen da, jaten da». (Codex I. C., can. 801).

Elizak, onen itz gutxitan, esaten digun egi au, azaldu ta argitu nai dizugu.

Sakramentu au zer-nola dan bakar-bakarik adieraziko dizugu gaurkoan.

¿Aldareko Sakramentu Santua zer da?

Aldareko Sakramentu Santua, Jesukristo gure Jaunaren gorputza, odola, anima ta Jaungoikotasuna ziñez (beraz) eta egiaz ogi ta ardoaren irudipean edo itxurapean dauzkan Sakramentua da.

Itz auek bat-banaka adierazi nai dizkitzugu.

Aldareko Sakramentu Santua deitzen degu, aldarean egin eta aldarean gordetzen dalako beti. Beste sakramentuak ez dira aldarean egiten, ezta ere gordetzen.

Aldareko Sakramentua esaten diogu, beste sakramentuen antzean onek ere bai baitu bere ezagungafi agirikoa. Ezagungafi ori, *ogi ta ardoak* eta sakramentu au egiteko Apaizak esaten dituen *itzak*, azaltzen digute. Ogia gorputz eta ardoa odol itzultzen bai dira Apaizaren itz oien bidez.

Sakramentu *santua* edo *guziz santua* esaten diogu, Sakramentu edozein santua ba-da ere, Aldareko au guzien gain-gañekoa dalako. Besteak Jaunaren graziaren eman-bide dira. Baño au, Santutasun beraren jabe egiten gaituana da, Jesukristo ber-bera gure artera dakafena ta gurekin egon eraz-

ten duena baita. Beste sakramentu guziak au ondo artzeko edo onen ondasunei guregan eusteko dira.

Jesukristoren gorputza, odola ta Jaungoikotasuna *ziñez eta egiz* ogi ta ardoaren irudipean daudela esaten degu. Egi utsa dalako, Jesus'en gorputzak ogiaren irudi edo itxura gorde aŕen, an eztagoala ogirik, baizik Jesukristoren egiazko gorputza, aren zañetako odola bera, ta Beraren anima ta Jaungoikotasun osoa. Eta berdin-berdin ardoa ematen duen edarian ere; ardoaren itxura, ardorik gabe; Jesusen odol biurtzen baita sakramentu ontan, naiz ardoaren itxura osoa gorde. Antxe dago, ba, Jesukristo, zeruan Aitaren eskuñean (eskubian) dagoena bera.

Ziñez eta egiz dago Jesukristo. Ezta gure iruditua bakafik.

Ziñez eta egiz dago; ezta ogia, aren gorputzaren oroigafi bat; ezta ere ardoa, Aren odola gogora dezakiguen gauza bakafik; baizik Jesus'en gorputza bera ta Aren odol egiazkoa ogi ta ardoaren irudipean daude.

Ogi ta ardoaren *irudipean edo itxurapean*,—esaten degu—dagoala Jesukristo. Zerbaiten edo norbaiten irudi edo itxurak gure zentzuetan gauza ura bera ematen duenean esaten degu. Sakramentu ontan Jesus'ek ogia edo ardoa ematen du, ogia ta ardoaren itxura artzen baitu gaur, gure begietara agertzeko. Baño ogi ta ardoz, gauza oien itxura edo irudia bakafik geratzen da sakramentu ontan. Jesus'ek gure begietara agertzeko artu duen jazkera edo soñekoa da, ba, ogi ta ardoaren itxura ori.

Argatik dio Kristau-ikasbideak:

*¿Apezak, Sagarako itzak esan ezker*o ostia zer da?

Apezak sagarako itzak esan ezker, ostia da Jesukristo, ogiaren irudipean estalia, eta ogitik ezta gelditzen bere itxura ta irudia besterik (N. K. I.)

Agian (aurki) esango dezu: Itxura nola egon diteke, edo eŕañua nondik, ori ematen zuena kenduz-gero?

Ori, Jaungoikoak oso eŕaz egin dezaken eta egiten duen gauza da. Gizonak ere ofen antzeko gauzak egiten ba-dakite. Argazki edo eŕetrato bat badaukat begi aŕfean. Orain lau urte il zitzaidan aŕfeba batena da. Ona emen aŕfen eŕañu ta itxura, gizonak jaso. Argazki onek bizirik agertzen dit aŕfeba; itzegiten ari zaitela ematen du. Nere aŕfebaren eŕañu egiazkoa da auxa. Bere aunditasuna, bere itxura ona, bere begiratu gozoa agerian jartzen dizkit. Baño *ziñez eta egiaz* au al da nere aŕfeba?—Ez, nere aŕfebak aspaldian alde egin zuen. Au gizonak jaso degun bere itxura edo irudia da.

Ona, ba, ogi-ardoarekin Sakramentu ontan gertatzen dana. Ogi egiazkoa izan zan; baño aren irudia edo itxura bere gañean jaso du Jesus'ek, eta geroz, or eztago ogirik. Ogi ñla dirudi, baño Jaungoiko bizia da.

Ardo egiazkoa artzen du Apaizak kalizean; baño Sagarako itzak esan bezin agudo, Jesus'ek bere odolbiurtzen du ardoa ta ardo ofen irudi edo eŕañu ilak, Jaungoiko biziaren odol bizia izkutatzen du nere begietatik.

Onela, ba, gizonak argazki edo eŕetratotan norbaiten itxura jaso aŕfen, gauza ñlarekin gelditzen geran artean, Jesus'ek ogi ta ardoaren itxura artzean ogi zana ta ardo zana bere gorputz eta odol bizi ta Jaungoikozko biurtzen dira. Au da Aldareko Sakramentu Santuaren lenengo mirari aŕfigafia.

Intzar Damaso An.



Parce, Domine

Elduayen A.

Par - - ce Do - - mi-ne par - - ce


The first system of musical notation for the song 'Parce, Domine'. It consists of a vocal line and a piano accompaniment. The vocal line is in a treble clef with a key signature of three flats (B-flat, E-flat, A-flat) and a common time signature (C). The lyrics 'Par - - ce Do - - mi-ne par - - ce' are written below the vocal line. The piano accompaniment is in a grand staff (treble and bass clefs) with the same key signature and time signature. It features a simple harmonic accompaniment with chords and moving lines in both hands.

- po-pu-lo par - - - - - ce po-pu-lo tu - - - - o

The second system of musical notation. The vocal line continues with the lyrics '- po-pu-lo par - - - - - ce po-pu-lo tu - - - - o'. The piano accompaniment continues with a similar harmonic structure, providing a steady accompaniment for the vocal melody.

ne in ae - ter - num ira-sca ris no - - bis ne

The third system of musical notation. The vocal line concludes with the lyrics 'ne in ae - ter - num ira-sca ris no - - bis ne'. The piano accompaniment provides a final harmonic support for the vocal line, ending with a sustained chord.



Meza-Alkartasuna

Alkartasun onen beri zerbait ilabeteoro dakusute «Zeruko Argiaren» atzean. Baño oartu al zerate zer dan, zertarako sortua ta zenbat irabazbide dauzkana dan?

Kaputxinoak siñeste gabeen artean dauzkagun misiotarako laguntza biiltzeko sortua da. Laguntza ori Aita Santuak bedeinkatzen dute. Pio Amargañenak aurena, Benedito Amaboskañenak urena. Pio X-gañenak: «egintza guztiz bikaña ta santua» deitu zuan. (1) Benedito XV-gañenak 1916'ean Kaputxinoen Aita Nagusiari (Generalari) esaten zion: «Eskeñak ematen dizkiogu gauza guzien Jaun on onari egintza au onespenaz (bedeinkazioz) ornitu duelako; edereñen ditugu auñera ere ori lagunduko dioten siñestunak (fededunak) eta guzioiei eta beroietako bakoitzari Gure Apostoluzko bedeinkapena ematen diegu». (2) Aita Santuen bedeinkapenaz gañera Gotzai eta Goigotzai edo Artzobispo ta Obispo askok onetsi dute egintza eder au. Kaputxinoen Aita Nagusiak asko goratu dute egintza au, oni eskeñak iduki dezazkegulako siñeste gabeen artean ainbat Misiolari, berak goratzen dituzten aurtzaro, aztetxe, ikastetxe ta bertako Apaiz-gaiak.

Mezaen Alkartasuna deitzen zaio oni, Kaputxinoak geren aldetik urtean **bost mila meza** ematen ditugulako Alkartasun ontan sartzen diranen alde. Gañera eguneroko **bostetan eun mezetan** parte-artzen dute. Gañera **amabi mila Kaputxinok** egunero egiten ditugun otoitz, nekaldi ta egintza on guzietan dezute partea.

Ontaz gañera Alkartasun onen alde zerbait eman edo egiten deitzen bakoitzean **irureun** eguneko induljentzia dezute.

Itzork etzala beriz aztu lanbide oni lagunduz,

1.^a Animak zeruratzan ari dala bere etxetik. 2.^a—Itzen animai ezin obeki laguntzen diela beren neketatik ateratzeko. 3.^a—Bere animaren alde irabazbide aundiago ta erazagoa, nekez izan dezakela.

Aztu gabe ikusi, aldizkari onen azken-azkeneko orialdean Meza-Alkartasunaz dakañen guzia.

(1) Analecta Ord. Cap. 1908'an, 161 eta 162 orial. (2) Acta Ap. Sedis, 1917'an Uztaren 2'an, Analecta Ord. Cap. 1916'ean 193, 1917'an 136 orial. 1921'an 163-161 orial.

Txina'rako Itxas-ontzitik

3 - XII 29.

Intza'r Damaso Aita

Iruñan



ERE biotzeko Aita maite ori: Onezkero asko xamar aldendu gera Euskaleriko txoko maite ortatik, baño ez uste izan ufuti bizita ere efi maite ofetzaz aztu daitekenik. Egi aundia sarturik dago Ipañagiferen abestitxo polit artan:

*Erialde guztietan
Toki onak badira
Baña biotzak dio
Zoaz Euskalerira.*

¡A zenbat aldiz gogora etofi zaigun gure txoko maite ori, bidean ain sari ikusten ditugun efi efljiogabeko oyek ikustean! Baño besteetan baño bi-ziago, Port-Saïd'en Suez'ko efekaren asieran dagon kai ospetsuan sartu giñanean gertatu zitzaiguna gogoratzen detan aldi bakoitzean...

Gure itxas-ontzia ikatz beafean zegon kai ortara eldu zanean eta ordu batzuk bakafik gelditu bear zuelako, gaztigatu zien bertako beltzei iru txalupetan ikatz guzia sarturik bere zai egoteko kaiaren erdian.

Gu amaikak aldera kaieratu giñan, bost egun oso iya legofik ikusi gabe egon ondoan... Bagoaz, bagoaz kaia bafena bazter guztietara begira ta ara nun bat-batean ikusten degun guregana zetoñen jende pila izugafi bat. Danak zetozten erdi jantziak, iya iya lafu gofian. Jaungoikoak bakafik daki zer gauzak entzun bear izan genitun denbora gutxian; ortik jo bear zutela, emendik pasatu bear zutela, kordelak bota bear zirela, bata aula zela, beste batek ostiko bat merezi zuela, au negafez, bestea kafasika, emen oiuka, an biraoka, beste aldean befiz tiraka, goraka, beraka, afika, ostikoka baño gauza guztiak bat batean. Afatsalde artan erotu ez giñuztenean uste dut ez gaituztela sekulan erotuko.

Noizpait ere asi ziran ikatza gure itxas-ontzian sartzen. Orduan entzun ziran kafasi, oiua, zaunka, birao ta zalapartak...! Aiseago saskiekin gure itxas ontzira igotzeko bi esol aundi jafi zituzten ta an egon ziran bi edo iru ordu gutxienez lasterka beti, ler eginda, eten gabe gora ta bera beren ikatz-saskiekin. Afiturik geunden gizon ayen lasterka aldi eta saskiak eramateko zalelasuna ikusirik, baño laster ikusi genituen bi gizon beltzen zigor latz eta zimelak. Ofa or esportada bakoitzaren ondoan ematen zien sari atsegiña, naiz gure efietako aritz zafak baño zafagoak ematen zuten aitonak izan. Ainbeste lan eginda baaldakizu zer sari ematen zieten? Ur zikin ikatzez betetako bat, bi txanpon erdoitu eta ikaztegia lo egiteko. Ofa or mundu ontako agintariak

bere menpekoei ematen dien sari zimufa... Baño negar aundiagoa egin erazi zigun, gizon ayek guztiak Jesukristoren lege biguin eta atsegiñez betea eza-gutzen etzutela jakiteak. Ai Aita nerea! Ez dezakezu zuk ondo ikusi Euskal-eriko toki eder oyetan zaudelarik, gauza negargafi oyek biotzari egiten dio-ten ozka ikaragafia. Ez daizuket itz gutxitan esan nik pasatu nuen afatsal-de samina. Bakar bakafik alaitzen zuten zerbait nere biotz samindua Jesu-sek bere ebanjelioan dakarzkien itz gozo ayek: «*Et illas oportet me addu-*



Gure Misiolariak berekin batean SAARBRUCKEN ontzian zijoazen Misiolari gizonezko ta emakumezkoain.


cere et fiet unum ovile et unus Pastor.» Ayek ere (ardiak) nere artaldera-tu bear ditut eta orduan mundu guztia artalde bat izango da, Kristo Efege Artzai duela.

Baño noiz izango ote da?

Aita nerea! Zuek Euskalefi maite ortatik zuen *otoitz eta limosnekin*, guk befiz gure indar eta izerdiekin eta bear balinbada gure odolarekin mi-sioetan bete zangun Jesusen Biotzaren nai bizi ori len bai len.

Arbizuar Felix A.

Kans. Mis. Apost.



TXINA'TIK

Befi txafak etofi zaizkigu oraingo aldian Txinatik; lapufekin gogofak ikusi bear izan dituzte gure misiolari gaxo aiek. Ona emen aietako batek bidali dizkigun beriak.

«1.—*Lapufak Sifengchen'en.*—Aspaldi gure misioleku onen inguruan ze-biltzen zorioneko lapufak; baso ta mendietan zeuden bitartean guk ez gi-

nuen belduñik; baña egun batez atera zitzaizkigun beren zokoetatik eta iri (efi aundi) onen afean agertu ziran. Lenagotik ixil-mandatari asko bidali zituzten, emengo befi ongi jakiteko. Ezin esan alako izu-labofiak artu zuen efi guzia; eta lapuñai gogor egiteko prestatu beafean, geienak igesari eman zioten, beren buruak salbatzeko biderik oberena ori zalakoan. Iriko familia ta jende aberatsak gurdi ta zamarietan eraman zituzten beren baliozko gauza guziak.

Bitartean efiko merkatarien burua atera zan lapufen buruarekin itzegi-tera, ea elkar-aditurik lapuñak andik ufutierazten zituen, efira sartzen utzi gabe, zer gostako zan ere. Lapuñak, efiri kalterik egingabe andik joateko, befogei ta amar miña dolar ta amar miña soldadu-jantzi eskatu omen zituzten. Nik eztakit egia dan edo ez. Baña beti ere merkatarien buruak, efira etofi zanean, ez iges egiteko mandatua bidali zidan. Orduko, zer gerta ere, nere gauzarik geienak lurpean gorderik neuzkan.

Ola kezka betarik egon giñan zenbait egunez; eta Lastailaren (Octubre) 29'an ixilka ikasi genuen, Siotchen ta Chengyuen aldera jo bear zutela lapuñak; ta olaxe gertatu zan.

2.—*Lapuñak Siotchen'en*.—Egun artan berean, iluntzean, erori ziran afi-erauntsi bat bezela, Siotchen efira; ara igesi joanak ziran Sifengchen'go merkatari geienak. Lenbizi agertu ziran lapuñak soldadu-jantzian zijoazen; argatik efitafak uste izan zuten, berai laguntzera zetozen soldaduak zirala. Zer naigabea, nor ziran oartu ziranean!

3.—*Lapuñak Chengyuen'en*.—Beste ainbeste gertatu zan Chengyuen'en. Ilabetearen 30'an, argi-ufatzean agertu ziran aren afean; iria zaintzeko soldadu gutxi zagola ikasi zuten eta bereala sartu ziran, efiañen nausi balira bezela. Efiko-etxeraño auferatu ziran ta tiroka asi, efiañen jaun ta jabe berak zirala adierazteko. Bereala, ez gero iñork efitik ateratzeko agindua eman zuten.

Misioetxean etzekiten oraindik, zergatik zan tiroketa ura; baña laster ikasi zuten. Etxe afean agertu ziran zenbait lapur, ederki armaturik.

Aurtzaro Sandu'ko nexkatoak elizan zeuden, gure Jauna artu befiak ziran ta Jaunari eskefak ematen ari ziran. A. Gregoriok guziei asolbizioa eman zien. Gero Gregorio ta Julian Aitak eliz-atarira atera ziran lapufen aufera, eta lapur aietako batek, Julian A. ikusi zuenean, ari tiroa emateko asmoa artu zuen; efiko alkatea zala iduritu zitzaion ta bizia kendu nai zion; beafik bere lagunak sinetsiarazi zioten misiolaria zala.

Gero bereala asi zan lapufeta. Len-lenik ostu zizkieten gure misiolariak beren abereak; gero ařapatzen zituzten zer guziak, jantziak, sukaldeko tresnak ta abar burusi (manta) batean bildu ta eraman zituzten. Orduan gure misiolariak, berdin ezer egin etzezaketela ikusirik, efitik iges egiteko asmoa artu zuten, debekatua bazegoen ere. Pingliang'erako bidea artu zuten bada; baña ufuti ikusten dituzte lau gizon, ongi armaturik berengana datozela; bidetik baztertu ziran, baña gizon aietako bat lasterka joan zitzaian atzetik, ařapatu zituen ta atzera efira etortzeko esan zien. Aien naigabea!

Etziran argatik izutu gure misiolariak; lapufen buruarengana agertzea

erabaki zuten; joan ziran bada efiko-etxera, an baitzegoen lapuñen burua, ta itzegin zioten ta bai koloreak aurpegira aterazi ere. Kaletan lapuñak besterik etziran ageri; gure misiolariak igarotzean begi zofotzez begiratzten zieten burutik oñetaraño. Lapuñen burua misio-etxera joan zan, ango zoko guziak ikusten ibili zan, eta bere kidekoak an agindako bafabaskeriak txartzat ematen zituen itzez ta keñuz. Andik joatean gure etxeko atean paper bat jafi ta



Kansu'n lendik dauzkagun 8 Aita Misiolariak A. Alemandar batekin

bere mendekoai agindu zien, misiolariei ez nekerik emateko. Baña dana alpefik; lapur-buruak aldegin zuen bezela, beste lapur-saldo bat sartu zan zalapartaka gure etxean, lengo beren lagunak zutik utzi zuten guzia puskatzen ta ondatzen zutela.

Gure misiolariak, iges egitea beste biderik gelditzen etzitzaiotela etsirik; abiatu ziran befiz ere efitik eta zelaietan barna sartu ziran, arik eta ostatua eman zieten etxe on bat arkitu arte. Iluntzea zan; ta orduantxe sartu zuen Gregorio Aitak egun artako lenbiziko amena (pokadua) agoan.

Gau artan etzuten lorik egin; biaramonean, lapuñak iritik aldegin zutela aditu zuten ta befi ofekin pozik itzuli ziran efira; bañan etzan egia, lapuñak efian ziran oraindik. Julian A. Aurtzaro Sanduan egindako ondamen ta kalteak begjztatzen ari zala, etzan oartu zer afiskutan zegoen; eta Gregorio Aita deitzera joateko atera zanean, lapuñen eskuetan erori zan; zituen guziak, baita bere soñekoak ere kendu zizkioten gixaxoari.

Au'eko egunean baño makurago zijoazen gauzak; iges egitea ere etzan efaz, efiko atariak ongi zaindurik zauden ta. Zer egin bada? Ona zer gogoratu zitzaion Julian Aitari; soka bat lotu efiko afesian (muralan) ta artatik ifistatuz jetxi zan afesian bera; gero kristau batek emandako soñekoa jantzi... ta abian. Gaueko amaiketan iritxi zan, otzez kikildurik, Rafael Aitaren misiotegira, Jutimio'ra.

Biaromonean agertu zan leku bereartan Gregorio Aita ere.

4.—*Lapufak Jutimio'n*.—Gure iru misiolariak, meza eman ondoan, ari ziran jolas ta jolas, egun aietako gertakariaz itzegiten, pozik ala ere geiagokorik izan etzutelako. Gizon bat bidali zuten Chengyuen'go bidera, andik zer befi zetofen ikastera. Eta ara non datorkien bereala gizona, lapufak ikuspegian dirala eta arin bai arin Jutimio'ra eldu dirala esanez. Bereala Rafael Aitak Ostia Santuak jan zituen ta iruak lenbailen iges egin zuten. Etxe-ko mofoiak ixanteko gorde zituzten etxe-ko gauzak, batzuek ur-putzuaren ondora egotziz. Liburuak bakafik etzizkiguten ostu; gañerako gauza gorde etziran guziak lapufen atzaparetan erori ziran. Ala ere *kopona* eramatea aztu egin zitzaioten lapufai; gero ostutakoa begiztatzen ari zirala galdetzen omen zuten bai: «Non dago misiolariaren arako ufezko *zer* ura?»

Iru misiolariak sakan batean, arkaitz-arte batzuetan izkutaturik zeuden; noizean-beinka ateratzen ziran zulogune artatik zelairaino, gertatzen zana ikusteko. Ikusi zituzten lapufak lefo luze-luzetan Kingchow aldera joaten; gauerako gure misiolariak kristau-etxe batera bildu ziran.


5.—*Lapufak Kingchow'en*.—Dima'ko Fernando A. dago efi artan misiolari. Afatsaldean agertu ziran lapufak Kingchow'en, ango jendeak alakorik uste etzutela, ta Sandu guzien eguneko goiza arte an ari izan ziran beren tzarkeriak egiten. Zorionez Fernando Aita beste alde bateko kristauak ikustera joana zan eta gañerako gauzak ostu bazizkioten ere, abereak beintzat gelditu zitzaizkion.

Bi iri (efi) aundi badira, oraindik lapufak agertu eztiranak: bat Pingliang, Andres Aitaren misiotegia; baña an soldadu asko dago ta ezta beraz lapufen beldufik. Bestea Sifengchen; emen egon gera Azaroaren amabostgafena arte, etofiko ote diran ez ote diran etofiko kezketan. Baña emengo merkatarien burua atera zaie befi ere lapufei, aien buruekin itzegitera; gauza asko, josteko makinak, txapelak, galtzerdiak, ardi-lafuak ta abar eraman dizkiete; gañera asko mila dolar ere bai. Oraingoz ba dirudi bada pakean uzten gaituztela.

6.—*Lapufak Tsao-scheng'en*.—Villava'ko Tarsizio Aitaren efi da ori; orain an daude lapufak; baña Tarsizio Aitak iges egin zuen garaiez Pingchow'ra. Ofa bada; lau mixioetxetan izan ditugu lapufak.

Lapur oiek zer asmo ote dute gerorako? Eztakigu bat ere, Jainkoak bakafik daki; arek nai duena egin dedila orain eta beti.»

ZERUKO ARGIA'ren irakurle maiteak, ofa or, Txina'tik etofi zaizkigun befi txafak. Otoitz egin, Jaunari eskatu gure mixiolari gaixo aien alde.



Gure Obispo Jaunaren gogo bizia.

Vitoriako Obispo Jauna beriz deiez ari da. Gauza eder bat egiten ari da, Vitoriako Seminario beria.

Baño diru geiago bear omen du. Beste *miloya* bear dala dio, guzia bear dan bezela bukatzeko. Asko da egia, baño ¿baaldakizute Seminarioak esan nai duan?

Gure Euskaleri maitean izango ditugun apaiz gaien etxea, or ikasiko dute gure apaiz gaiak, or aziko dira, or apaiz egingo dira, ortik artuko dute gero efiak zaintzeko ta efiak zeruratzeko bearko dutena.

¿Pensatu al dezute beñere zeññ gauza edera dan Apaiz gaien etxea?

Obispo Jaunak ori dio bada, oraındaño miloi erdi bat eman diote euskaldunak ta geiago bear du. Ta afitu zaitezte; eskale egiten da gure Obispo Jauna; eskale, Jaungoikoaren izenaz eskatzen dizue euskaldun guziai bear duan diru ori.

¿Zer egin bearko ote dezute? Zuen efietan, ta zuen Parokitan, ortarako limosna eskatzen dutenean, ez ukatu, agertu orain ere, euskaldunak beti izan dezuten fedea ta Elizaganako maitetasuna.

Zuen efietan Apaiz Jaunak, Seminarioarako dirua biltzeko lan ori ematen badizue, ez ukatu; bakoitzak bere indar guzia jafi bear du, ta alegin guziak egin bear ditu.

Euskaleriko efi guzietan olako Junta oiek jartzen badira, ta bakoitzak bear dan bezela lan ori egiten badu, laxter gure Vitoriko Seminario nagusia bukatuta izango degu, Apaiz gaiak leku egokia izango dute, ta Euskaleriak bear dituan Apaiz Jaunak.

Ori bai dala kristautentzat egiteko aundia, edera ta Jaungoikoaren gogozkoa! Euskaldunak, zuen limosnaz agertu zuen fedea ta gure Obispo Jaunari diozuten maitetasuna.

Donostiar Gabriel A.

¡Monjak ezin ikusi!

Mouscron (Beljika) efiko sozialistak pozik daude noski. Efiko gaixotegia utzi bear izan dute, sozialistak agindu dielako, 23 monjak. 1847'gañen urtean artu zuten monjak gaixotegi au, ta geroztik egin duten lan ederafik asko maite zituzten bai efiak, bai sendagiñeak. 1921'gañen urtetik sozialistak efiko jabe dira, baño ez dute iñondik ikusi monjak egiten zuten lana, monjak egiña zalako noski; onegatik urte oyetan naiko traba jafi die, monjak noizbait aspertu ta gaixotegia utziko zutelakoan. Monjak bialtzeko, aitzekiren bat bear zuten ta au ere bñatu dute esanaz, monjak gaixoa beartu egiten zutela, iltzeko zeudenean, sakramen-

tuak artzera. Sozialistak monjakin egin dutena oso gaizki ikusi dute efikoak ta dirua biltzen asi dira, monjai etxe bat emateko, eritik atera ez ditezten.

¡Eguberirik gabe!

Polonia'ko egunari edo periodikuak diotenez, Eguberitan katoliko asko etofi dira Ukraina'tik Polonia'ra. Rusia'n nagusi ta jabe diranak egiñalak egiten ari dira, Jaungoikoa Rusia'tik botatzeko ta Eguberiak ere debekatu dituzte. Egun batzuek lenago, apaiz asko kartzelan sartu dituzte, ixilkia etxetan ere Eguberi-jairik egin ez zezaten. ¿Ukrania'ko katolikoak nola etsi bear zuten Eguberirik gabe? Polonia'ko muga igaro al izan dutenak, Polonia'n egin dituzte beren Eguberiak; Ukrainiatik ezin atera ziralako, asko ikusi dira muga bertatik Polonia'ko erien ezkiñak eta kantuak entzuten.

Aita Santuari ařosa-landareak.

Bere urte ontan, Aita Santuari opari (regalo) asko eldu zaizkio munduko efi guzietatik. Opariak mota askotakoak izan dira ta Aita Santuari erakutsi diote zenbat maite duten bere umeak. Oyetako opari eder bat Tirnava (Txeko-Eslobakia) eritik etofi zaio. Tirnava'n bizi da Enriketa Chotek izena dun kondesa bat, ařosak asko asko maite dituen. Mota guziko ařosa-landareak dauzka ta miñaka eukiafen, guziaz maitasun aundiaz begiratzen die noski. Vaticano'ko baratzetan ondo etofiko diralakoen, Aita Santuari 400 landare edefenak bialdu dizkio. Oyekin batean beste landare mota erakutsi zaizkio Aita Santuari, Tirnava'ko umezurtz-etxean bilduak. Aita Santuarentzat 4.300 meza entzun dituzte, 4.300 aldiz Jauna artu, 9900 Aita gure, Agur Maria ta Gloria, 2900 eřosario ta 21000 biotz-otoitz (jaculatoria) esan dituzte an dauden ařak. Ařosa txorta eder oiek zein pozik artu dituen Aita Santuak esan beařik eztago.

Prantziskotarařak Txina'n.

Aita Santuak askotan adierazi die mixiolariak zein beařezko gauza dan mixiotan bertako semeakin gero ta apaiz geyago egitea. Prantziskotarařak ez dira lan ontan atzean gelditu. Txina'ra joan zan lenbiziko Prantziskotarařa, Montecorvino'ko Juan mixiolari ospetsua asi zan, apaizak izan nai zuten Txinařentzat, etxeak egiten. Apaizgaia ondo azitzeko, etxe asko dauzkate gaur bertan Prantziskotarařak Txina'n. Etzaie naikoa ta auřerago joateko asmo edeřak dituzte. Orain bi urte edo, Petzien eřian lendabiziko komentua iriki zuten, Prantziskotarařen soñekoa jantzi nai zuten gazteentzat eta laster beste batzuek ere irikiko dituzte noski. Jaungoikoak auřera eramango al ditu bere laguntzarekin Prantziskotarařen asmo bikaiñ-edeřak.

IL-BEŘIAK

Zeruko Argia'ren arpidedun zintzo ziran auek Jaunaren besoetan azkeneko loak artu ditu:

Azkoitia'n: Pedro Sudupe. **Irun'en:** Eugenia Ruiz. **Ařuitz'en:** (Lařaun) Manuela Ařegi.

Beren etxeakoi daukaten naigabeen lagun egin bidenabar, beste arpidedunai otoitz bana eskatzen diegu il oien onetan.

Betiko atsedena emaezu, Jauna. Eta betiko argiak argitu bitza.

Beude pakean. Amen.

Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan Iruña'n